

Donostia, 2024ko azaroaren 7a

131/24 PRENTSA OHARRA

IBILBIDEEN ETA GELTOKIEN ALDAKETAK AZAROAREN 10EAN, IGANDEA, BEHOBIA-DONOSTIA DELA ETA

Datorren **igandean**, azaroaren **10ean**, Behobia-Donostia egingo dela eta, 7:00etatik 17:00etara gutxi gorabehera ibilbideetan eta geltokietan aldaketak egingo dira.

- **5-BENTA BERRI, 16-IGELDO, 18-SEMINARIOA ETA 25-BENTA BERRI-AÑORGA**

- 7:00etatik 9:40ra eta 15:00etatik 17:00etara gutxi gorabehera, Boulevard 17 eta Gipuzkoa Plazako geltokiak **Okendo kalera** eramango dira.

- 9:40tik 15:00etara gutxi gorabehera, amaierako geltokia **Urbietta 6an eta Urbietta 20an** egongo da. Boulevard 17, Askatasunaren Hiribidea 31, Okendo eta Gipuzkoa Plazako geltokiak zerbitzurik gabe egongo dira.

- **19-AIETE-BERA BERA, 21-MUTUALITATEAK-ANOETA, 26-AMARA-MARTUTENE ETA 28-AMARA-OSPITALEAK**

- 7:00etatik 9:40ra eta 15:00etatik 17:00etara gutxi gorabehera, amaierako geldialdia **Okendo kalean** egingo da. Boulevard 9, Boulevard 13 eta Gipuzkoa Plazako geltokiak **Okendo kalera** eramango dira.

- 9:40tik 15:00etara gutxi gorabehera, amaierako geltokia **Urbietta 6an eta Urbietta 12an** egongo da.

- **8-GROS-INTXAURRONDO ETA 29-HEGO INTXAURRONDO SUR**

- 7:00etatik 15:00etara gutxi gorabehera, amaierako geldialdia Etxaide kalean egingo da. Boulevard 15, Askatasunaren Hiribidea 6, Askatasunaren Hiribidea 15 eta Askatasunaren Hiribidea 19 geldialdiak **Etxaide kalean** egingo dira. Iparragirre, Zurriola, Groseko Anbulatorioa eta Nafarroa Hiribidea 34 geltokiak zerbitzutik gabe geratuko dira. Pinudira, Vasconiara eta Ategorrietara lekualdatuko dira.

- 15:00etatik 17:00etara gutxi gorabehera, Boulevard 15, Askatasunaren Hiribidea 6, Askatasunaren Hiribidea 15 eta Askatasunaren Hiribidea 19 geltokiak **Legazpi kalera** eramango dira.

- **9-EGIA-INTXAURRONDO ETA 42-ALDAPA-EGIA**

- 7:00etatik 15:00etara gutxi gorabehera, amaierako geldialdia Etxaide kalean egingo da. Okendo, Askatasunaren Hiribidea 6, Askatasunaren Hiribidea 7 eta Euskadi Plaza geldialdiak **Etxaide kalean** egingo dira.

- 15:00etatik 17:00etara gutxi gorabehera, **amaierako geldialdia Okendo 18 kalean** egingo da (ohiko geltokia). Euskadi Plaza, Askatasunaren Hiribidea 6 eta Askatasunaren Hiribidea 7 geldialdiak **Okendo kalean** egingo dira.

- **13-ALTZA ETA 13-ALTZA-BUENAVISTA**

- Erdialderantz:

- 7:00etatik 9:40ra gutxi gorabehera, Nafarroa Hiribideko eta Kursaalako geldialdiak kenduko dira eta **Galtzada Nagusira eta Colón pasealekura** eramango dira.

- 9:40tik 14:30era gutxi gorabehera, Casares Pasealekuko, Buenavista, Escalerillas, Herrera, Gaiztarro, Mirakruz Gaineko, Ulia, Toki Eder eta Groseko geldialdi guztiak **Ategorrieta 31n, Galtzada Nagusian eta Colón pasealekuan** egingo dira. Linea horien erabiltzaileek zerbitzua Herrera pasealekuan har dezakete, edo 8, 29 eta 31 lineak erabili alternatiba gisa, Zubiaurre pasealekuan, Erdialderantz.

- Altza alderantz: 7:00etatik 15:00etara gutxi gorabehera, Boulevard 3 eta Askatasunaren Hiribidea 21eko geltokiak **Askatasunaren Hiribidea 3an** egingo dira.

- **14-BIDEBIETA**

- Erdialderantz: Zerbitzuaren hasieratik 14:30era inguruan gutxi gorabehera, Elosegi 283, Mirakruz Gaina, Ulia, Elosegi 43, Ategorrieta 65, Jesuitak, Mariaren Bihotza, Kursaal eta Gipuzkoa Plazako geltokiak zerbitzurik gabe egongo dira. Linea horien erabiltzaileek 8, 29 eta 31 lineak erabili ditzakete alternatiba gisa, Zubiaurre pasealekuan, Erdialderantz.

- Bidebieta alderantz: Gipuzkoa Plaza eta Askatasunaren Hiribidea 7 geltokiak **Askatasunaren Hiribidea 3ra** pasatuko dira. Fernando Sasiain kaletik, Ategorrietako Erlojua, Elosegi 22, Intxaurrondo Zaharra, Mirakruz Gaina eta Elosegi 102ko geltokiak zerbitzurik gabe egongo dira. Autobusa desbideratuko da Ategorrietatik Garberaraino eta handik Saihesbidetik Pasai San Pedro Hiribiderantz Bidebietan sartzeko.

- **17-GROS-AMARA-MIRAMON**

9:40tik aurrera Mirakruzetik eta Jaialaetik joango da Ategorrietaraino. Iparragirre, Zurriola, Groseko Anbulatorioa, Nafarroa Hiribidea 34 eta Ategorrieta 41 geltokiak kendu egingo dira. **Ategorrieta 31 izango da hasierako geltokia.**

- **24-ALTZA-GROS-ANTIGUO**

- Amara-Antiguorantz: 9:40tik 14:30era gutxi gorabehera, Herrera, Gaiztarro, Mirakruz Gaina, Toki Eder Jesuitak eta Mariaren Bihotza geltokiak zerbitzurik gabe egongo dira, eta **Ategorrieta 31n, Galtzada Nagusiko 27an eta Herrera pasealekuan** geldituko dira.

- **31-INTXAURRONDO-OSPITALEAK-ALTZA**

-Erdialderantz doazenean, 9:40tik 14:30era gutxi gorabehera, Zubiaurre Zubiaren biribilgunean jiratu eta **8 eta 29 lineek Zubiaurren egiten dituzten ibilbide eta geldialdi berak** egingo ditu. Mirakruz Gaina, Ulia, Toki Eder, Jesuitak eta Mariaren Bihotza geltokiak zerbitzurik gabe geratuko dira, eta **Ategorrieta 31ra** aldatuko dira. Kursaalera geldialdia **Colón Pasealekura** aldatuko da eta Boulevard 15ekoa **Askatasunaren Hiribidea 18an** egingo da.

- **33-LARRATXO-INTX.-ANTIGUO-BERIO**

- Berio alderantz: 9:40etik 14:30era gutxi gorabehera, Ategorrieta 65eko eta Ategorrieta 41eko geldialdiak **Ategorrieta 31ra** aldatuko dira.

- **37-RODIL-ZORROAGA**

9:40etik 15:00etara gutxi gorabehera:

-Rodil alderantz: Mirakruzetik eta Jaialaitik joango da Fernando Sasiaineraino 33 linearen geldialdiak egingez. Norabidea aldatuko du Kotxetegietan eta bukaerako geltokia **Mons-Marrutxipi geltokian** (33 linearen geltokia) izango du. **Rodilgo geltoki guztiak bertan behera geratuko dira.**

-Zorroaga alderantz: Mariaren Bihotza, Kursaal, Gipuzkoa Plaza eta Askatasunaren Hiribidean ez da geldialdirik egingo, eta **Ategorrieta 31ra, Galtzara Nagusira** (14 linearen geltokia) eta **Colón Pasealekura** aldatuko dira, eta gero Frantzia Pasealekutik aurrera hartuko du bere ohiko ibilbidea.

- **38-ALTZA-TRINTXERPE-MOLINAO**

9:40tik 14:30era gutxi gorabehera, ezingo da zirkulatu Buenavista, Pasai Antxo eta Molinao inguruan. Geltoki hauek zerbitzurik gabe egongo dira: Oleta, Darieta, Buenavista, Eskalantegi 15, Eskalantegi 58, Molinao Gaina, Molinao Plaza, Molinao Bidea 64 eta Darieta 141. Herrera inguruan Txingurri, Herrera Euskotren, Gaiztarro, Pasai San Pedro-Bidebieta eta Elosegi 111ko geltokiak bertan behera geratuko dira.

- **41-GROS-EGIA-MARTUTENE**

Gros alderantz: Mirakruzetik eta Ategorrietatik joango da **Jaiailairaino (azken geldialdia)**. Hemendik aurrera ohiko ibilbidea berreskuratuko du Loiola alderantz. Iparragirre, Zurriola, Groseko Anbulatorioa eta Nafarroa Hiribidea 34 geltokiak kendu egingo dira. **Jaiailaira** eramango dira.

- **46-SAN ANTONIO-MORLANS**

Morlans alderantz: San Antonio kaletik Garroko Zubirantz aterako da eta Zubiaurre Pasealekutik jarraituko du Jaiailairaino eta Galtzada Nagusiraino. Luis Pradera 9, Luis Pradera 1, Alto Mirakruz, Ulia, Toki Eder, Jesuitak eta Mariaren Bihotza geltokiak kendu egingo dira.

- **TB6 ULIA TAXIBUSA**

Zerbitzurik gabe 9:40etik 15:00etara gutxi gorabehera.

- Ulia alderantz: 7:00etan, 8:00etan eta 9:00etan irteerak egingo ditu. Ondoren, zerbitzurik gabe 14:00ak arte.
- Gros alderantz: 7:40ean, 8:40ean eta 9:40ean irteerak egingo ditu. Ondoren, zerbitzurik gabe 14:00ak arte.

Lasterketa amaitutakoan, Anoetara joateko autobusak egongo dira parte hartzaile guztientzat, Askatasunaren hiribidea 14tik.

Informazio gehiagorako, kontsultatu Dbus-en webgunean (www.dbus.eus) edo jar zaitez gurekin harremanetan 900 840 146 telefono zenbakira deituta.

